

KONTROL MOZIOA

Donostiako irisgarritasunari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztzen du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko urriaren 18an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Irisgarritasun unibertsalak bizitza sozial eta komunitarioa oztopatzen duten barrera fisikoak eta komunikazioaren alorrekoak desagerraraztea du helburu. Hori horrela, pausuz pausu Donostia irisgarri bat lortzera iritsi beharko genuke.

Horretarako gure hiriko espazioak, eraikin publikoak, lantokiak, etxebizitzak... irisgarri izan beharko lirateke. Bakarrik horrela bermatuko genituzke desgaitasuna duten pertsona guztien eskubideak; desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizi ahal izan daitezen eta gizartean erabat parte hartu ahal izan dezaten, berdintasun-baldintzetan.

Eusko Jaurlaritzako Irisgarritasuna sustatzeko kontseiluak "Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Proposamena" egin zuen 2019ko azaroan. Bertan, hitzez hitz horrela jartzen du: "EAEko udalak beharturik daude irisgarritasun-plan bat izatera".

Eusko Jaurlaritzak, era berean, laguntza-programa bat dauka udalei eta udalerrira baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeei zuzenduta, irisgarritasunaren alorreko planak eta obrak egiteko.

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Proposamenean, EAEko hiru hiriburuek (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) adierazi dute badutela irisgarritasun-plana, baina gaur egun ez daukate irisgarritasun-arduradunik. Eta proposamenetako bat da irisgarritasun-arduradunak izendatzea. Guk dakigula, dokumentuan horrela adierazi arren, Donostiak ez du irisgarritasun planik, bai ordea Bilbok eta Gasteizek.

Irisgarritasun arazo handienei dagokienez, dokumentuak eraikin publikoetarako sarbideak salatzen ditu, bai eta hiri eremuan mugitzeko egon daitezken arazoak ere. Desgaitasunari buruzko 2008ko inkestak dioenez, EAEn desgaitasuna duten pertsonen % 41ak dio zailtasunak dituela kalean ibiltzeko, eta ehuneko hori % 46ra ere iristen da emakumezkoen kasuan. Adierazitako zailtasun nagusiak espaloiak igotzeko eta jaisteko dira, edo haietan ageri diren trabak gainditzeko.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Bestalde, gure hiriko auzo asko zaharkituta daude, bai orain urte asko eraikitako auzoak direlako, bai bertan bizi diren bizilagunak adin handikoak direlako. Hortaz, bizi diren auzoan bertan irisgarritasun-arazo ugariarekin egin ohi dute topo haien egunerokotasunean.

Orain arte jaso dugun informazioaren arabera, Irisgarritasun Planaren zirriborroak 45 eraikin publikoren irisgarritasun azterketa jasoko luke. Irisgarritasun planari buruz hainbatetan galdetu dugu batzordeetan: 2020ko martxoan, 2020ko ekainean, 2021eko urtarrilean eta azkenekoa, hilabete honetako batzordeetan. Azken batzordean zinegotzi ordezkariak erantzun zigun Irisgarritasun Plana egina dagoela eta haren itzulpena baino ez dela falta. Eta behin itzulpena bukatuta Tokiko Gobernu Batzarrak onartu behar duela. Lehendabizikoz galdetu genuenetik urte eta erdi pasatu dela gogorarazi nahi dugu, eta Eusko Jaurlaritzak “ Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Proposamena” publiko egin zuenetik ia bi urte, eta oraindik Donostiako Udal Gobernuak ez du Donostiako irisgarritasun planik aurkeztu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- 1- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Irisgarritasun Plana lehenbailehen bukatu, udal taldeekin eta eragileekin partekatu eta publiko egin dezala.
- 2- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako auzoetako irisgarritasun azterketa egin eta kronograma bat ezar dezala auzoz auzo irisgarritasuna hobetzeko plan bereziak garatzeko.

Donostian, 2021eko urriaren 21ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia